

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa

## Aurkezpena

Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen IV. Txapelketa egingo dugu Irunen datorren azaroaren 27an, larunbatez. Gure hizkuntzaren eremuan molde honetako lehiaketak ezagunak ez diren arren, ohikoak ditugu inguruko hizkuntza batzuetan (frantsesez, ingelesez, italieraz, alemanez...) eta bestelakoa izaten da oro har geografian hartzen duten hedadura, hizkuntza batek har dezakeen unibertso guztira zabaltzen baitira batzuk eta eskualde mailakoak baitira beste batzuk. Gure aurtengo hau laugarren edizioa da, aurreko biak bezala Euskal Herri osoko hitz gurutzatu zaleei zabaldua.

Hitz joko eta hitz gurutzatuen argitaratzaileak, egunerokoak eta aldizkariak, eta hitzen mundu ludiakoaren barruan gorpuzturiko elkarteak izaten dira lehiaketa horien antolatzaileak. New York Times egunkari ospetsuak, esate baterako, bere American Crossword Puzzle Tournament antolatzen du urtero, milaka jokozalari hartan parte hartzeko aukera eskainiz, eta lurralde mailakoa baizik ez den Campionato Italiano di Cruciverba delakoa antolatzen du urtero Ottetto elkarteak Toskanako Grosseto hirian. Frantsesaren eremuan, bestalde, 54. edizioa ezagutu du aurtengoan Belgikako Championnat francophone de mots croisés delakoa eta aipatzekoa da halaber Jean Rossat hitz gurutzatugilearen lana, molde honetako lehiaketa eta erakustaldien sustatzaile nagusia den aldetik. Bestetan ere gertatzen den moduan, euskarazko hitz joko eta hitz gurutzatuen egile oparoenak dira Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen IV. Txapelketa honen antolatzaileak, LUMA hilabetekariaren, hau da, hitz jokoak euskaraz argitaratzen dituen aldizkari bakarraren bultzatzaile eta argitaratzaileak, LUMA taldea, eta Xedera eta Bagabiga elkarteak, baitira txapelketa hau bultzatu dutenak.

Txapelketa bada ere, eta halakoa da, txapela jantziko baitu lehiarabazleak, topaketa baten aurrean gaudela esan genezake, elkarrekin topo egiteko eta elkar ezagutzeko aukera izango baitute egun horretan, giro alaian eta patxadan, euskarazko hitz jokozaleek. Hain zuzen ere, zale horiei guztiei begira antolatzen dugu txapelketa hau; bixigarria da lehiaketa, jakina, baina gure lehen helburua ez da puntako hitz gurutzatuen ederra besterik gabe egitea, baizik eta denon gustuko giroa sortzea eta guztioi egun goxoa eskaintzea. Gero, esan gabe doa, ohorea zor zaie aurren sailkatuko direnei.

## Jokoen prestakuntza

Hitz gurutzatuen edo gurutzegramen taxuko jokoak aurkezten dituzte antolatzaileek txapelketako probetan eta aurtengo honetarako espreski sortuak izango dira taula guztiak. Halatan, lehen mailako garrantzia izango dute haietan eskainiko diren definizioak edo azalpenak. Mota askotakoak izan daitezke definizio horiek, eta urrundu egiten dira ez gutxitan hiztegieta topatzen ditugun estereotipoetatik. Luma taldeko kideak, LUMA hilabetekariaren egileak, arduratuko dira jokoen prestakuntzaz eta haien egokieraz eta zuzentasunaz. Era berean, epaile izango dira Luma taldeko kideak, horren beharra suerta litezkeen egoera guztietan.

Nolanahi ere, LUMA aldizkarian azaltzen diren jokoen hein eta neurrikoak izango dira txapelketa-koak, kontuan harturik betiere gisa honetako lehiaketek behar duten bixigarria.

## Izen-ematea

Misterio handirik ez du Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen III. Txapelketa honek. Parte har dezakete hartan hala nahi duten euskaldun guztiek, 16 urte beterik badituzte (haien artekotzat hartuko dira aurtengo abenduan egitekoak direnak ere).

**20 euro** ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartu nahi duen lehiakide bakoitzak (txapelketa + bazkaria). **15 euro** ordainduko dituzte, ordea, **LUMA** hilabetekariaren harpidedunek (bazkaria soilik).

**2009ko azaroaren 24an** bukatuko da izena emateko epea. **50 lehiakide** onartuko dira gehienez.

Bertan, txapelketa egunean eta lekuan, ordainduko dira izen-emateari eta bazkariari dagozkien kuotak.

### IZENA EMATEKO ORRIA

Postaz, e-postaz, web gunean edo telefonoz emaizkiguzu datuak

Tel. 943630883 / 943629564

◆ E-posta: [xedera@xedera.com](mailto:xedera@xedera.com) ◆ [www.xedera.com](http://www.xedera.com)

XEDERA HITZ JOKOAK - Aixin Zolua 5 behea. 20304 IRUN

Izen-deiturak .....

Helbidea .....

Hiria ..... Posta Kodea .....

Tel ..... E-posta .....

Bazkaritarako lagunak .....

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen III. Txapelketa



**Irunen, 2009ko azaroaren 28an**

Bidasoako E.K.T. elkartea, Larretxipi 12 behea

**Luma** hilabetekariak antolatua

## Sariak

Lehenengoak Txapela eta 300 euro

Bigarrenak 200 euro

Hirugarrenak 100 euro

Laugarrenak 50 euro

Bosgarrenetik hogeigarrenera hamarna euro

## Lehiaketa

2009ko azaroaren 28ko goizeko 10.00etarako bilduko dira lehiakide guztiak Irungo Bidasoako Euskal Kultur Taldearen egoitzan (Larretxipi karrika, 12 behea), eta goizeko 10.30etan hasiko da saioa. Ez da hiztegi elektronikorik, ez eta ordenagailurik onartuko, bai ordea hiztegi-liburuak.

Hiru aldi izango ditu lehiaketak: sailkapena, finalerdia eta finala, eta honela banatuko dira ordutegian:

10.30 - 11.30	Sailkapena
11.45 - 12.45	Finalerdia
13.00 - 14.00	Finala

### Sailkapena

Kanporaketa izaerakoa izango da. Lehiakideek 12 x 12 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute ordubeteko epean.

Proba honetan aurreneko hogeitau postuetan gertaturiko lehiakideak sailkatuko dira finalerdirako. Finalerdira igaro ahal izateko, ezinbestez bukatu beharra dago proba ordubetea.

### Finalerdia

Kanporaketa izaerakoa izango da. Lehiakideek 15 x 12 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute ordubeteko epean.

Proba honetan aurreneko lau postuetan gertaturiko lehiakideak sailkatuko dira finalerako. Finalera igaro ahal izateko, ezinbestez bukatu beharra dago proba ordubetea.

### Finala

Agerian eta jendaurrean jokatu dute finala hartara iritsi diren lau lehiakideek. Ez dira mahaian ariko, lurtean paraturiko paneletan baizik, eta eskolan arbelean baleude bezala bete beharko dute egitekoa. Lau panelek elkarren kontra ipini eta, ezin ikusirik, besteak zertan ari diren ez dakitela jardungo dute lehiakideek. Inguruan ibili ahal izango da publikoa panelez panel, finalak eskatzen duen isiltasunari begirune eginez. Lehiakideek 15 x 15 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute, jakinik horretarako gehienez ordubeteko epea dutela.

## Txapelketako jokoan gainerako xehetasunak

Hitz gurutzatuen edo gurutzegramen taxuko jokoa aurkeztuko dituzte antolatzaileek txapelketako probetan eta aurtengo honetarako espreski sortuak izango dira guztiak. Halatan, lehen mailako garrantzia izango dute haietan eskainiko diren definizioek edo azalpenek. Luma Taldeko kideak, **LUMA** hilabetekariaren egileak, arduratuko dira jokoen prestakuntzaz eta haien egokieraz eta zuzentasunaz, eta eskarmentu handiko idazle eta letra-jendearekin elkarlanean landuko dituzte lehiaketan aurkeztuko diren taulak. Era berean, epaile izango dira Luma taldeko kideak horren beharra suerta litezkeen egoera guztietan.

## Bazkaria

Herri eta elkarte giroko bazkari batez emango zaio bukaera txapelketari. Eta lehiakideen lagunei ere harrera egingo zaie bazkari horretan. Beraz, bazkaritarako txartelak ere hartu ahal izango ditu lehiakideak lagunentzat (bi gehienez). Lehiakide ez direnen bazkari-txartelak 15 € balio du.

## Nola heldu

Garraio publikoan (autobusez edo trenez) nahiz autoz, ez duzue nahaste handiegirik izango Irunera etortzeko, baina arazo txiki batzuk izan ditzakezue, hiria ezagutzen ez baduzue, Txapelketa egingo dugun tokia topa-tzeko (Bidasoako E.K.T. elkarte, Larretxipi karrika, 12 behea). Hoberena da, Irunen egokitu eta gero, San Joan plaza, hau da, Herriko Etxeko plaza, edo Urdanibia plaza (azoka eguna denez, leporaino egongo dira plaza honen inguruko bazterrak) aldera oinez jotzea eta handik Bidasoa EKTra zuzentzea, guneha haieetatik hurbil baitago, Irungo parte zaharrean, elkarte hori.

Bi ibilbide proposatzen dizkizuegu Irunera orduko:


**San Joan plaza (Herriko Etxea) - San Martzial karrika  
- Sarjia karrika - Bidasoako E.K.T.**

**Urdanibia plaza - Larretxipi karrika - Bidasoako E.K.T.**

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

I. KANPORAKETA

Irun, 2007ko abenduak 1



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora 1: min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ Denbora 2: min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2007 - I. KANPORAKETA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Sokatik balitz, urkatu.
- 2.** Edariak saltzen diren leku.  
Azken letra erori zaio hitzari. Seme-alaba onak baldin bagara, jaso egingo diogu.
- 3.** Ez maskulinoa ez femeninoa, ez eta neutroa, baina generoa hala ere.  
Uranioaren bokala.  
Nire.
- 4.** Caetano Velosok zioenez, serioa ez den herrialdeko biztanle.  
Gauaren hasiera.
- 5.** Horrelakoak omen daude irrazionalkeriarik handienetan.
- 6.** Bostetan hartzekoa (mugagabeen).  
Azken letra kenduta, aspaldian irakurri zenuen Atxagaren nobela hura.  
Zintzo.
- 7.** Octavianoren tropei aurre egin genien Gipuzkoako mendia.  
Eragotzi ezin badugu, ... .
- 8.** Kausa, arrazoi.  
Gabarra txikia.  
Ona zen kaiolak betetzeko.
- 9.** Trebe, abil.  
Egunsentian gurpil handia, eguerdian plater txikia, baina handian hotza eta txikian beroa.  
Hala geratzen dena, gero ate joka.
- 10.** Hasperen egitekoa da letra honen izena.  
Hankarik ez, besorik ez, baina horren dantza!  
Listua, txistua, istua.  
Gure bostetan azkena.
- 11.** Bizkaieraz, beste.  
Hego Amerikako hegazti sarraskijale.  
Hilezkortzat zuten inkek.
- 12.** Sudurra zuritzekoa.  
Amaren bila joan da.

## GOITIK BEHERA

- 1.** Hondartzako aleak bezalakoak.
- 2.** Obratu ezina, sabela hustu ezina.  
Musika nota.
- 3.** Metatesia eginda, Mediterraneo bazterreko hiri handi baten laburdura.  
... eta behin, noizbehinka.
- 4.** Gipuzkoan, aska, ganbela.  
Luzera neurri zaharra.
- 5.** Hori bai suplizioa!  
Ezkor ez den Nafarroak dioena.
- 6.** Kafe landarerik ez eduki arren, kaferik onena daukan herria.  
Bakarrik gura ez duen Bizkaiako ibaia.  
Nitrogenoaren ikurra.
- 7.** Bizkaian zentral nuklearra egin nahi izan zuten herriaren izenaren lehen silaba.  
Santuak bai, baina garbiagoak.  
Su emanaz gero, erne.
- 8.** Barazkijaleak dira eta zuhaitzetan ibiltzea maite dute. Harrigarriak dira, daukaten dragoi itxurarekin.  
K bat aurretik, eta dena konpondua.
- 9.** Lo hartuz gero, zama.  
Ama duen (Euskal Herriko hiriburu bateko) auzoa.  
Bizitasunik, funtsik ez duena.
- 10.** Bokala, gure bostetan lehena.  
Emakumezkoen izenen amaiera.  
Elurra hala jausten da batzuetan.  
Erne!
- 11.** Handia izanagatik, izen polit askoa daukan aintzira afrikarra.  
Ogia, hitz elkartzeetan.
- 12.** Haurrak.  
Ez omen du botikarik behar, baina aldaketa handian dabil...

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

I. KANPORAKETA

Irun, 2007ko abenduak 1

## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1	Z	I	N	T	Z	I	L	I	K	A	T	U
2	E	D	A	R	I	T	E	G	I		A	M
3	N	O	B	E	L	A		U		E	N	E
4	B	R	A	S	I	L	D	A	R		G	A
5	A	R	R	A	Z	I	O	N	A	L	A	K
6	T	E		B	I	A	N	A		O	N	
7	E	R	N	I	O		E	K	I	D	I	N
8	Z	I	O		A	L	A		L	I	K	A
9	I	A	I	O		E	K	I	A		A	T
10	N		Z	I	B	A		T	U	A		U
11	A	D	I	N	A		K	O	N	D	O	R
12	K	O	K	A	I	N	A		A	I	T	A

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

FINALAURREKOA

Irun, 2007ko abenduak 1

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1						■									
2												■			
3											■			■	
4									■						
5				■											■
6					■						■				
7							■			■					
8	■			■								■			
9								■							
10			■			■							■		
11										■					■
12				■					■						

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora 1: min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_    Denbora 2: min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2007 - FINALAURREKOA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Gaitasun, trebetasun.  
Euskal Herrian ez, baina Europan horrelakoak dira etxebizitza asko.
- 2.** Halakoa nahi zuen Lizardik euskara.  
Lepo mota bati esaten zaio orain.
- 3.** Bizkaiko udalerrria, eskuinekoa ez izan arren santua izan zena.  
Behea adierazten duen atzizki.  
Zuberoaren lehoiaren forma du.
- 4.** Arrain txikia da, baina amua bezain zorrotza eztenez.  
Hatzak, aztarnak.
- 5.** Sagarra sagardotarako utzi ez zuena.  
Kaletarrek euskarazkoa, baina artzainek erdarazko zena ematen diote. (mugagabeen).
- 6.** Tutu, baina gozoan.  
Musika nota ikur duen metal zuri distiratsu.  
Izotzak ere egiten du.
- 7.** ... bihurtzen da aita, alaba jaio berriari begira.  
Ez eme.  
Otsaileko maitale ar.
- 8.** Bizkaiko herria, hitz gurutzatuen kuttuna.  
Ahal bada, delikatessenez.  
Guztiak ez dira zurgintzarako on.
- 9.** Bizkaieraz, ahulak, argalak.  
Horixe egiten dira europarrak Espainiako olio frijituaren usainarekin.
- 10.** Galioaren ikurra.  
Errepikatuz, beleari ipurbeltz esan zion txori.  
Oroimen.  
Azkena birritan.
- 11.** Itxura edo tankera hartua, barrena ustel eduki badezake ere.  
Laboreen emaitza, fruitua.
- 12.** Rapa ..., Pascua uhartearen izena, bertakoen hizkuntzan.  
Bi lo eginda.  
Ditu.

## GOITIK BEHERA

- 1.** Hendaian irratia duen itsas hegaztia.  
1998an itxi zuten egunkari hura.
- 2.** Bideratzea aski ez dela frogatzen duen aditza.
- 3.** Oztopatuak, traban jarriak.  
X izpiak laburrean.
- 4.** Buruan jantz dezakezu, lepoan lotu, sakelan gorde...  
Iridioaren ikurra  
Laborrian.
- 5.** Hainbat emakumeri izena eman dien txori bidaiaria  
...-z dabilenak gauzarik zailenetako bat egiten du: denbora irabazi.
- 6.** Euskal Herriko diskoetxe zaharrena da.  
Hemendik dabilen euskal musika talde baten izenaren bigarren osagarria.
- 7.** Urruneko ...-a baino, auzo ona hobea.  
Beroan, beltzetik gorrirako alkimia egiten duen harrigarri.
- 8.** Modak halakoak nahi ditu.  
Ez nahasi kuiarekin.
- 9.** Muxikako auzoa; izen bereko ibaia Mundakan itsasoratzen da.  
Antzinako grekoen jauna, ugazaba edo erregea.
- 10.** Harridura adierazteko hitza, arraioa baino "ahulagoa".  
Tilde bat erantsita, nolako noblezia gure abizenak!  
Aita Santua etsai deklaratu zuen lehen herrialdearen matrikula letra.
- 11.** Aurrenekoa birritan.  
Letrak banaka irakurrita, "maiatza, erdiz hotzak hila, erdiz eguzkiak ..."  
Turkiako estatuan hizkuntza debekatua daukan herritarra.
- 12.** Kontsonantea.  
Patxada.  
Daukazu.
- 13.** Errauskine bezalakoak, ahizpaordeek gorrotatua.  
Testu-programek askotan gaizki zatitzen duten kontsonante multzoa.
- 14.** Bokal errepikatua.  
Xebreak dira: hautsi eta gero jo behar ditugu.
- 15.** Sugeak zart egiten du, zakurrak...  
Erruz gertatzen da istripua abiadaren ... .  
Aurrenik ageri ohi den bokala.

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

FINALAURREKOA

Irun, 2007ko abenduak 1


## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	A	N	T	Z	E		A	L	O	K	A	T	U	A	K
2	N	O	R	A	N	A	H	I	K	O	A		M	A	O
3	T	R	A	P	A	G	A	R	A	N		B	E		S
4	X	A	B	I	R	O	I	A		T	R	A	Z	A	K
5	E	B	A		A	R	D	I	T	X	A	K	U	R	
6	T	I	T	I		R	E	N	I	O		E	R	R	E
7	A	D	U	R	T	I		A	R		K	A	T	A	R
8		E	A		E	L	I	K	A	T	U		Z	U	R
9	E	R	K	I	N	A	K		N	A	R	D	A	T	U
10	G	A		Z	O		A	K	O	R	D	U		Z	Z
11	I	T	X	U	R	A	T	U	A		U	Z	T	A	
12	N	U	I		E	T	Z	I		D	A	U	Z	K	A

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

FINALA

Irun, 2007ko abenduak 1



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora 1: min. \_\_\_ seg. \_\_\_ Denbora 2: min. \_\_\_ seg. \_\_\_

Emitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2007 - FINALA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Nafarroako herria bezala da Donostiako auzoa. Izen bera daramate bi herri hauek, baina iparraldean dago bata eta hegoaldean bestea.
- 2.** Gurditxo-beteketa, sakela-hustuketa. Lehen baratzekoak, orain gobernukoak.
- 3.** "Nirea da!" esan izan dute beti barne-ministroek.  
... eta borrokan kementsu, aspaldi ez duela esan zen bezala.  
Limoiarekin nahiz esnearekin.
- 4.** Kafeak ere horrelakoak izan daitezke. Donostiako udaletxea horixe zen lehen.
- 5.** Sodioaren ikur nafarra. Errenkada.  
Hegoaldean izanek hartu dio lekua.
- 6.** Araiarrarekin erraz nahasten den herritar. Nafarroako herri urtegiduna. Bokalik biribilena. Ilearen hasiera.
- 7.** "... , ..., lema sabachtani?" Kristok gurutzean, arameeraz.  
Iparragirrek ona zeukan, eta musika gainera. Orain "iraunkorra" izaten da, baina lehen "iragankorra" izaten zen.
- 8.** Niri  
Zakotea.  
Bizkaiko taldeak.
- 9.** Sulfuroz beteriko kontsonantea. Gaitzaren hedadura dela-eta etsia emateko hitz teknikoak.  
Dardarkaria birritan.
- 10.** Danbor mota.  
Hala dio zuhurki esaera zaharrak: "lazko ebasleak ... dezake aurtengo lapurra".  
Garoa, iratzea.
- 11.** Paludismoa.  
Arabiako ipuin guztietan gobernadoreak maitaleari ematen dion fruitu gozoa.
- 12.** Ordaindu behar duenak labur irizten dio beti. Nafarroako herria, Araitz udalerrian. Aki, neka.  
Bokala.
- 13.** Musika nota.  
Bitxia da: jartzen dabiltzanak dira arbuigarri, jartzen ez dutenak txalogarri.  
"... bat da", aparta, ezin hobea.
- 14.** Hil horretako eguna, bostak eta iluna. Onartzeko moduko.
- 15.** Metalezko sokak.  
Okerrak buruan dituen abere.  
Biok dakigun Gipuzkoako herri hori.

## GOITIK BEHERA

- 1.** Zikoitza.  
Lehen labaderoan sortzen omen ziren. Orain blogetan sortzen dira.
- 2.** Poliziak kanpaijolea tiroka hil zuen herria, Nafarroan, ETAkoei deika ari zelakoan. Hizkera dotorean edo, orbelek osatzen dutena geure pausoa gozatzeko.
- 3.** Marruskadurak ez du higatzen, handitzen baino: harrigarria, elurrezkoa izanda!  
Ipar Euskal Herrian, izugarri handi.  
Kampo, landa.
- 4.** Finena, lausenkari diharduena. Hippy eternalak izatetik libratu gintuena. Nahastura trinko.
- 5.** Kukua mututzen den hilabetea. Aitzin-solasa, hitzaurrea.
- 6.** Bostetakoa (mugagabea). Amorrua adierazteko modako hitz teknikoak. Kafkaren *Prozesua* nobelako protagonista.
- 7.** Ez nahasi atekarekin!  
Diru.  
Atzo hil ziren hamar... .
- 8.** Hitzen jatorri arabiarra salatu ohi digun silaba.  
Akitu, unatu.  
... eta minak, baina singularrean.
- 9.** Bigarren letra.  
Agian.  
Hala dio esaera bizkaitarrak: "Arrantzalearen dirua, urak ekarri eta ... eroan".
- 10.** Luxuaren lurraldea, omen. Errusiak saldu egin zuen. Areago.
- 11.** Lohi, zikin.  
Politikoek askotan diote deabrua ere hartuko luketela halakotzat.  
Gramoaren laburdura.
- 12.** Tuberkulosiak jo du.  
Hura, ez ni.  
Korapilo bitartez idatzi zuen herria.
- 13.** Argiaren sua, hotza; suaren argia, ... . Iridioaren ikurra.  
Baratzeko landare lekaduna.
- 14.** Bai, errusieraz.  
Lur-eremutan neurtzen den aberastasuna. Ni, zertan? Ez dakit, haria galdu dut oraintxe.
- 15.** Bilera hartakoa ez dugu inoiz irakurri ahal izango.  
Gure txitxi ederrek merezi duten oihal sintetikoak.  
Ekialdeko eguzkia.

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen I. Txapelketa

FINALA

Irun, 2007ko abenduak 1


## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	Z	U	B	I	E	T	A		B	A	S	T	I	D	A
2	E	R	O	S	K	E	T	A		S	A	I	L	A	K
3	K	A	L	E	A		A	L	A	I	T	S	U		T
4	E	B	A	K	I	A	K		K	A	S	I	N	O	A
5	N	A		A	N	D	A	N	A		U	K	A	N	
6	A	I	A	R	A	R		E	S	A		O		I	L
7		E	L	I		E	S	K	O	L	A		I	B	I
8	E	N	I		A	N	O	A		A	L	D	R	A	K
9	S		M	E	T	A	S	T	A	S	I	A		R	R
10	A	T	A	B	A	L		U	R	K	A		I	R	A
11	M	A	L	A	R	I	A		D	A	T	I	L	A	
12	E	P	E		I	N	T	Z	A		U	N	A		E
13	S	I		O	K	A	S	I	O	A		K	R	A	K
14	A	Z	A	R	O		O	N	A	R	G	A	R	R	I
15	K	A	T	E	A	K		A	K	E	R		A	I	A

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

## I. KANPORAKETA

Irun, 2008ko azaroak 22



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2008 - I. KANPORAKETA

## EZKER ESKUIN

1. Ugari ibili ziren, kilun-kulun, mendebalde urrun hartan.
2. Hutsaren usaina dakarren arren, langileak amets izan ohi duen hitz. Sendabidea, baina medikuntza-mintzaira sasidoktoan.
3. "... dago" entzun zen kartetan ari ziren gizonen mahaiaren aldetik. "Estatutuak" hitzaren orde, administrazio-testuetan gehien errepikatzen den okerra.
4. Arabako mendialdean, Arraia-Maeztu udalerrian hain xuxen, dago herrixka hau. Errepikatuz, hala egiten dugu orain barre euskara idatzian, karlisten irrigarri edo. Arnasketan laguntzen duen letra.
5. Modan jarri zen hitz hau 60.ko urteetatik aurrera, mutil gazteen ilajeari erreparatuta. Gazteei egin behar omen zaie.
6. Kontuz, u batez erretzen du! Greziako uhartea, Safo poetaren sorlekua. Arabako Iruñako idazkun faltsuetan azaldu da hitz hau, guraso arren irudi.
7. Nekea, itomena, betekada... adierazteko. Arabiako desertuaren erdian dago eta bost milioi biztanle pasa ditu. Izena eder, adarrak oker, sorginak maizter.
8. Idi-probek famatu zuten Gipuzkoako herri bateko. Gure ola satsu bezain santuaren osagarri. Euskaldunok harrro gauzkan kontsonante darrdarrkaria.
9. Gure lehengusu kaukasoarren hiriburua. "Non da hemen ibaia?" galdetu zion Gabriel Arestik Juan San Martin eibartarrari. Eta honek: "Gainean zagoz, tapau egin zuten".
10. Hona hemen euskarazko izena irabazi duen letra bakanetako bat. Eremuak, baina azaletik jaun-andreok.
11. Halako zinateke zu ere, Asiako Vientian hirian sortua bazina. Haren berri izan zuten Ponpeian.
12. Halakoak dira Ipar Euskal Herrian, direnak ez, baizik eta noizbait izan litezkeenak. Luke, baina toka.

## GOITIK BEHERA

1. Katolikoan santugaien zerrenda ofizialean, hildako arruntak baino koxka bat gorago duzu honako hau. Halakorik bakar bat ere ez du egiazko kaskamotzak.
2. Lurretik goiti oso motx. Liburuzainarenak bezala dira poliziarenak.
3. Erromantikoxeagoa da maiatz hau. Argizaria egitura, ezta edukia.
4. Irten, eta kendu azken hirurak! Bildots jaioberri, ahogozaoren gustagarri. Esloveniaren laburdura, baietz oroitu!
5. Gipuzkoarrek nahi bai, baina ez zuten lortu: orain bestelakoak dira matrikulak. Zerbait kontatu, baina iparraldekoen eran. Ezinbestekoa, teilak non paratua izango badu.
6. Toki batean ohitu, ezinbestez bada ere. Haiek gabe, estropadetan ziabogarrik ez.
7. Txoil, arras, total... ipar-ekialdeko moduan. Piperrek famaturiko herri bateko.
8. Kurriken antzean, pluralean erabiltzen da batez ere Ipar Euskal Herriko hitz hau, baina haren soilean emazu zuk. Harrak gobernatzera joan. O batez zurrungarako prest.
9. Abarka zahar hondatuak. Atx! Ekialdean, talde, multzo handi.
10. Orreak edo likabrak, ezinbestekoak dira haien fruituak ginebra on bat egiteko. Badira moduak eta moduak.
11. Batzuek gutxi uste duten arren, itsasertzean ere badu Gipuzkoako herri zabal aipatu honek bere eremua. Eten barik, ..., aritu zen txorakeriak esaten, 'aski da' esan genion arte.
12. ...-azentua, frantsesek horren gogoko dutena. Horien artean bizi eta laketzen dira oso gus-tagarritzat hartuak diren arrain mota batzuk.

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

I. KANPORAKETA

Irun, 2008ko azaroak 22


## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1	D	I	L	I	G	E	N	T	Z	I	A	K
2	O	P	O	R		T	E	R	A	P	I	A
3	H	O	R		E	S	T	U	T	U	A	K
4	A	T	A	U	R	I		K	A	R		O
5	T	X	I	M	A		L	E	K	U	A	
6	S		L	E	S	B	O	S		A	T	A
7	U	F		R	I	A	D		A	K	E	R
8	A	I	A	R		L	O	H	I		R	R
9		T	B	I	L	I	S	I		E	G	O
10	I	X	A		A	Z	A	L	E	R	A	K
11	L	A	O	S	T	A	R		L	A	B	A
12	E	K	A	I	A	K		L	I	K	E	K

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

FINALAURREKOA

Irun, 2008ko azaroak 22



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2008 - FINALAURREKOA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Jende aski zelebrea -zainak, jagoleak, urgazleak,...- biltzen dira Euskal Herrian horien arteko nagusira.  
Ez da askotan batere xamurra, ... eltzetik aterako dituen topatzea.
- 2.** Halaxe urak, ekaitzaren ostean  
Sendo eta gotor, biba erdal hitzak!
- 3.** Talioaren ikurra.  
"...", pozez gainezka zen gure mutikoa.  
Gauza naiz, eta harro nago.
- 4.** Atun batzuk ez ezik, zenbait morroi ere mota horretakoak dira.  
Bere horretan Garazin; 'a' batez, abendu aitzin.
- 5.** Erne, poliziak eskua gainean ...!  
Dotoreak izan ohi dituzte liburu faltsuek, xume eta merkeagoak kutuneko liburuek.  
'E' batez, bostetakoa.
- 6.** Gizon itxura du ingelesez, baina baimena da Bizkai aldean.  
Frantsesek jakingo balute beren "hemen" horrek zer esan nahi duen euskaldunen belarrian, ikaratu egingo lirateke.  
Bete ezean, zomorroak eramango hau.  
Bizkaian ere, baina labor.
- 7.** Maizenik erabiltzen dugun letra omen.  
Eskobatzeko orduan, txilarraren parekoak.  
Eta hala ere, gerta liteke batere euritsua ez izatea.
- 8.** Gaur hola, bihar batek daki...  
Gizonezkoak Ipar Euskal Herriko ekialdean eskola-emaile.
- 9.** San Martinetan izaten dira Gipuzkoako Goierriko herri txiki honetako festak.  
Esaeraren arabera, erraz asko eramango duzu, haien hariz eginiko sokaz ere, nonbaitetik egiaz alde egin nahi duena.
- 10.** Saltzailearen petzeroa.  
Itsasoak itsaskia bezala, izana badu honek.
- 11.** Euskal presoek horrelakoak asko eginagatik ere, bost axola haien kartzelazainei.  
Izenak besterik iradoki lezakeen arren, ez da ETaren segida.
- 12.** Hala bizi dituzte afganistandarrek hegazkinen zurrumurrua sumatu ondoko une luzeak.  
Aretxabaletako auzoa da hau, bai horixe!

## GOITIK BEHERA

- 1.** Honela dio Joseba Sarrionandiak: "Euskara beti baita klabea, giltza. Mezu zifratua. Kartzelariak ezin ...".  
Pare bat, bizkaitarrak noski!
- 2.** Hartatik ardoa apaizak.  
... omen du pizzaren sekretua.
- 3.** Pare batekin, barazkia argi eta garbi.  
J. M. Etxeita euskal idazle mundakarra alkate izen zen hiriburu asiarrekoa.
- 4.** AEBen larderia handiaren ikur.  
Polinesiako uhartedi batekoa da honako hau.
- 5.** Haren jabe dira hiztun erraz eta dotoreak.  
Erandiok Txorierrin sartua duen muturra.
- 6.** Gizarte-aurrekontuetan hainbat ...? Hori ez da zoritxarrez gure kasuan albiste.  
Inor gutxik nahi duen arren, hura eske gabiltza edo ibili gara gehienok.
- 7.** Bikainak kontsonanteen premiarik ez.  
Sionisten helburua, palestinarren amesgaiztoa.
- 8.** Greziako lurralde historikoa, erromatarrek probintzia bilakatu zutena.  
Errepublikanoen artean, horra IRA.
- 9.** Zer litzateke euskara letra hori gabe?  
Estalgarria nahiz berogarria.  
Metal trinkoenaren ikurra duzu hau.
- 10.** Kutsakorra da eta beltza izan daiteke, bai eta ustela, mina edo errea ere.  
Gaixoak! Benetan ari gara.
- 11.** Musika nota erantsi, eta horra geure gustuko musikaria!  
Launaka, baina Ipar Euskal Herriko ñabarduraz.
- 12.** Gipuzkoan eta bestetan, zuzeneko itaunetan.  
Kolpatua, Ipar Euskal Herriko haurrideen moduan.  
Kontu bitxiak txinatarrek hots honekin.
- 13.** Horietako baten moduan saldua izana salatu zuen "Ozaze Jaurgainian" erromantze zuberotar ezaguneko neska protagonistak.  
Arras gustuko zuen Rommel jeneral naziak gurditzar mota hau.
- 14.** Arbolak bezala, gorputzak hainbat.  
Ez da Bilbo Donostiaren ederraren ... . Ala bai?
- 15.** Zakurraren antza du, baina Ipar Amerikako euskal artzainek batere ez dute maite.  
Txantxetan edo hala badiote ere, Franco ez zen inoiz gradu militar horretakoa izan.

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

FINALAURREKOA

Irun, 2008ko azaroak 22

## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	A	K	A	D	E	M	I	A	K		B	A	B	A	K
2	N	A	R	O	T	U	A	K		S	O	L	I	D	O
3	T	L		L	O	R	I	A	T	U	A		G	A	I
4	Z	I	M	A	R	R	O	I	A	K		Z	A	R	O
5	E	Z	A	R	R	I		A	P	A	L	A	K		T
6	M	A	N		I	Z	I		A	R	A	U		B	E
7	A		I	S	A	T	S	A	K		U	R	T	E	A
8	N	O	L	A		E	R	R	I	E	N	T	A	K	
9	A	R	A	M	A		A	M	A	R	A	U	N	A	K
10		E	R	O	S	L	E	A		I	Z	A	K	I	A
11	B	A	R	A	U	A	L	D	I	A	K		E	T	B
12	I	K	A	R	A	N		A	R	K	A	R	A	Z	O

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

FINALA

Irun, 2008ko azaroak 22

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1						+			■						
2								■							
3				■								■			
4						■					■				
5							■		+						
6			■											■	
7					■						■				
8	■												■		
9		■						■							■
10									■						
11				■								■			
12							■						■		
13						■									
14			■					■							
15											■				

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2008 - FINALA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Ilargi-aldien araberako aldaketak pairatzen dituztenez esan ohi da.  
Zurginaren etxeko habeak, aldrebeskeriaren ikur direnean.
- 2.** Badoa eta badator, beti hartan gauden seinale.  
Kartzelariak bat behar eta horra Bizkaian ... .
- 3.** Urdaibain du pausaleku.  
"Neurthitzetan" eman zuen Oihenartek berearen berri 1657an.  
"Amen. Zu ... eta ni hemen"
- 4.** Maltzurretan maltzurrena, baina Bizkaian.  
Azkena zerrendan, ugari aldiz gurean.  
'Dinat' esango niake neska bahintz.
- 5.** Sagarrak bezala onartzen ditu bixiguak barruan.  
Bat ... ni ere, egia balitz.
- 6.** Metalek zeinek berea, eta hona urrearena.  
... bat eman zioten, ingurukoen atsedenerako.  
Nirea eta beste askorena balio duen letra.
- 7.** Azpian zernahi onartzen duen gaineko jantzia.  
Tisika eta hetika ere deitu izan zaio gaitz honi.  
Mundu globalizatutik kanpokotzat jotako herria.
- 8.** Konparazioaren gradua adierazten du.  
Betekada adierazten duten sigla amerikanoak.
- 9.** Bokal luzea.  
... onekoak dira Errioxako ardoak.  
Irabazi nahiz mozkin.
- 10.** Bi osagai ditu.  
Kanpokoa da jatorriz zuhaitz edo zuhaixka hau.
- 11.** Hondarrezko du gure ondoko herri ospetsuak.  
Zineman izan ohi dira horrelakoak ospetsu.  
Nafarroako herria Iruñerrian. Hau beldurra!
- 12.** Jakile da Zuberoan.  
Sei ditu bakoitzak, Ipar Euskal Herrian.  
Austria Interneten.
- 13.** Itoarazi.  
Behera egin.
- 14.** Giza eskubideen arloko sigla ezagunak.  
Badu afizioa.  
Legepean ezarria.
- 15.** Erretratua baino, Euskal Herriaren ... egiten du askotan kanpoko prentsak.  
Joan nadin.

## GOITIK BEHERA

- 1.** Kultura monoteistek kondentatu dituzte bereziki horrelakoak.  
Ari izanak.
- 2.** Aldenduak, urrunduak.  
Bi ziren, greziarren ustez, Kaukasoan bata eta Europako mendebaldean bestea.
- 3.** Txapelketa honen gertalekuko auzoa.  
Poesiaren arau eta konbentzioen bilduma klasikoa.  
Kontsonantea.
- 4.** Metal bigun zilarkara baten ikurra.  
Harpa da estatu honen ikurra.  
Laga.
- 5.** Inoren gustua bete, inoren ... egin.  
Antz handikoak.
- 6.** Garo nahiz iratze.  
Egotea gogoko.  
Putre batez da bare.
- 7.** New Orleans izan da haren habia nagusietako bat.  
Parte gaiztoko zen lehen, hegazkin balio du egun.  
Begi, hitz eratorrietan.
- 8.** Hiru marra morse alfabetoan.  
Borotra izan zen Euskal Herriko lehen txapelduna kirol horretan.  
Frantzia iparraldeko departamentua.  
Bokal atomikoa.
- 9.** Batze, elkartze.  
"On dagigula janak, minik ez edanak, hobe ... etzanak".
- 10.** Bi anega balio zuen edukiera-neurri honek Bizkai aldean  
Hura gabe, ez canzone, ezta canzonetta ere.
- 11.** Gustura gaude ..., guztiz eroso.  
Ipar Euskal Herrian, ahaidetasunak gehiegitxo dakarrenean.
- 12.** Tantalioarena eta ez talioarena.  
Bizi luzekoa da eta, jakina, ez du hortzik.  
Antxoarik ez eta alde egin digun hegalabur.
- 13.** Pipiak opari egiten digun irin.  
Izu, baina ipar eta ekialdean.  
Hobe gutxi eta kito, ezen ez asko eta zorrez ... .
- 14.** Garaiak.  
loi bilakatuak.
- 15.** Kaiku handitzat jotako giderrak.  
Solasean, berriketan, baina Bizkai aldean betiere.

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen II. Txapelketa

FINALA

Irun, 2008ko azaroak 22


## SOLUZIOA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	I	L	A	R	G	I	J	O		Z	O	T	Z	A	K
2	D	E	N	B	O	R	A		B	A	S	A	U	R	I
3	O	K	A		G	A	Z	T	A	R	O		H	O	R
4	L	U	K	I	A		Z	E	T	A		D	I	A	T
5	O	T	A	R	R	E		N	E	N	T	O	R	K	E
6	A	U		L	A	S	A	I	G	A	R	R	I		N
7	K	A	P	A		T	I	S	I		E	T	N	I	A
8		K	O	N	P	A	R	A	T	I	B	O		O	K
9	I		E	D	A	T	E		E	T	E	K	I	N	
10	B	I	T	A	R	I	K	O		A	K	A	Z	I	A
11	I	B	I		E	K	O	I	Z	L	E		I	Z	U
12	L	E	K	U	K	O		S	E	I	R	A		A	T
13	I	R	A	T	O		B	E	H	E	I	T	I	T	U
14	A	I		Z	A	L	E		A	R	A	U	T	U	A
15	K	A	R	I	K	A	T	U	R	A		N	O	A	N

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen III. Txapelketa

## I. KANPORAKETA

Irun, 2009ko azaroak 28



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_.

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2009 - I. KANPORAKETA

## EZKER ESKUIN

1. "Jainkoaren botika" ere esaten diote ingelesez lo-belar honi. Luze nahiz labur, bidaia da betiere.
2. Koittauak gu, horren engainaerrazak, uste dugu horrelakorik sekula ez digutela sartuko! Eskuz jotzen dira, onarpenaren edo ezespenaren ordainetan.
3. Esnea marmitatik ateratzeko erabiltzen zen ontzi (Gipuzkoako Beterrin). Euskal Herriko sindikatu zabalena da inolaz ere.
4. Pozgarria da batzuetan bokalak birritan eman behar izatea. Deabruak eginikoetatik begiratzeko agintzen zigun dotrinak, eta guk jaramonik ez.
5. Sozietate honek bukaera du eskas. Fideli eman dio segida.
6. Berriro esan eta barre egin dezagun ba! ... egiten dute lan mendiko kontrabandistek; besteek, noiznahi! Egipton nagusi jardun zuen belatz-burua.
7. Jerusalemgoei esan zien Jesukristok beragatik ez negar egiteko. 'Nagon' esango nion emakumea balitz, baina ez zen.
8. '... bizi eta errez hil', esan ohi da, tragikoki, Ernio azpiko herri ospetsu bat ahotan hartutakoan. Gure arbasoen gutizia piztu zuen XVI. mendetik aurrera Hego Euskal Herrian zabaldu zuten diru honek.
9. Poxpoloa alegia. Doinu, baina Ipar Euskal Herrikoen moduan. Lau orri eginik utz zaitzake, beldurturik.
10. Belgikan sortu eta Senan husten ditu urak ibai honek, 302 km egin eta gero. '... egina', ink egina, seko mozkortuta. Isurkaria omen da hots hau. Tira ba!
11. Zerrenda zehatz baten arabera ordenatuak.
12. Aiarako lekua eta kontzejua duzu, zer uste zenuen bada? Etsaia delako, horrela deitzen diete Bizkaiko leku batzuetan gaixotasun larriei.

## GOITIK BEHERA


1. Nekea adierazten du errepikaturik. '... leihoa', hau da kontraleihoa.
2. Txizagura esaten diote beste batzuek. Bi silaba egiten dira mendebaldean eta bakarria ekialdean, baina lehengo urtean gaude betiere.
3. Garo honek irlandar itxura du. Ez dakit ziertoro nolakoak diren Iraken asteak, baina dotrina usaina du honek.
4. Nafarroan horrela, euskal hezkuntzaren alde. Irtenbide bila bazabiltza, ezinbesteko duzu goiak eta ... ongi miatzea.
5. Erdaldun askok uste du euskarazko hitz guztiek horixe dutela amaiera. Azkonaren modukoa zen lehen eta otea jotzeko tresna geroago. ... nagusian ondu zuen Beethovenek bere Zazpigarren Sinfonia ospetsua.
6. Oro har, hala esaten zaie zuhaixka berdez beteriko eremuiei. Egarririk bezala egin dezake uholdeak.
7. Mateo ..., ehiztari alderraia, arima herratuaren irudia. Burua nahasteko aukera eskaintzen du nonahi, eta jokoan tranpa egiteko Eibar alde horretan.
8. 'T' batez esku-zarta, bere horretan adeitsu eta jostakin. Olaguetar, egozkuetar, etsaindar nahiz etulaindar, guztiak dira ... .
9. Zuzeneko galderetan, gipuzkeraz eta. Sukaldaritzak famatu du. Handia da haren beteko gizona.
10. Ipar Euskal Herrikoa da gabon-kanta molde hau. Teilatuaren gaina eratzen du.
11. Udan bero, neguan hotz, Arriasgoitin dago ... Bete ezin den desira adierazten du balizko baten aurretik.
12. Pl., ardien lepoko gaitza, golua ere deitua. "Maite, maite, maitia..." kantatu zuen aspaldi.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1	O	P	I	O	A	█	T	X	A	N	G	O
2	Z	I	R	I	█	T	X	A	L	O	A	K
3	T	X	A	N	T	X	I	L	█	E	L	A
4	A	A	█	E	R	A	S	O	A	L	D	I
5	█	G	I	Z	A	R	T	█	R	A	U	L
6	K	A	R	█	G	A	U	A	Z	█	R	A
7	A	L	A	B	A	K	█	N	A	G	O	K
8	N	E	K	E	Z	█	D	U	K	A	T	█
9	P	█	A	H	A	I	R	E	█	I	Z	U
10	O	I	S	E	█	T	O	T	A	L	█	R
11	K	A	T	A	L	O	G	A	T	U	A	K
12	O	Z	E	K	A	█	A	R	E	R	I	O

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen III. Txapelketa

FINALAURREKOA

Irun, 2009ko azaroak 28



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2009 - FINALAURREKOA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Ez dugu horregatik bandoa joko, baina halako dituzu buzkantzak ere.  
Munduko animalia bizkorrenetako batzuk dira, bai eta finezia eta dotoretasunaren ikurra ere.
- 2.** Txatala ere deitu zioten, Orixek adibidez.  
Berbera izan arren, kutsu berezia du Ipar Euskal Herriko haurrideen nitrogeno honek.
- 3.** Milioi bat biztanle ditu Aljeriako hiri honek.  
Halako zen Hilarion Eslava musikaria; halako da Ruben Beloki pilotaria.  
Hamar, besterik ezean.
- 4.** Har ezan, ezezkoan bada ere.  
'... beharra zagok Txinako herria' pentsatu zuen Maok Ibilbide Handiari ekiterakoan.  
Eskean dabil beti euskal sindikatu hau.
- 5.** 'Jainkoa da nire epaile bakarra' duzu gizon izen judu honen jatorrizko adiera.  
Ipar Euskal Herrian, haien giderren gainean joaiten ziren sorginak akelarrerat!
- 6.** Auto, Garazi aldean.  
Emilianoren deitura, jantzi ohi duguna.  
Letonian bat, eta ez biga.
- 7.** Burutik eginda daudela esan ohi da horiengatik.  
Gai kimiko arras erradiokatibo baten ikurra.  
Ez dute, ez, sendotasuna sobran.
- 8.** Tera adierazten du, hau da, trilioi bat.  
Haiengan ipini zituzten naziek begiak, etorkizunari begira.  
Errusia balio du Interneten
- 9.** Gizon izena.  
'... huna' opa dizute zuberotarrek arratsero.
- 10.** Sagarra hartu zuen arbolatik, eta horregatik dira egun gure sagardogileak horrenbeste aberastu.  
Zurginek erabiltzen dute.  
Polipo txiki bat da, zentimetro gutxi batzuk baizik ez.
- 11.** Zesarren ildotik, baina doixtarren moduan.  
Erruz dira Hollywooden.  
Zuberoan, bereziki bildurik eskainiko dizute bokal hau.
- 12.** Molde askotakoak dira, ardia motak adina esan liteke.  
Ai ene, hau deitorea, hau auhena!

## GOITIK BEHERA


- 1.** Izenak besterik iradoki lezakeen arren, Arabako herri honen bazterretan itsasorik ez.  
Komunista errusiarren isilpeko polizia.
- 2.** Euskara batuaren kontuak: 'daramate' esan nahi du, baina nekez entzungo duzu horrelakorik.  
'Eta' aurretik duela, guztiz zehazten horren erraza ez den zerranda adierazten du askotan.
- 3.** Hoberena ... dizut, zeure egungo honetan eta bizitza guztian.  
Lekuren batera, betiere.
- 4.** 'Goru' mendebaldean, 'kilo' ekialdean eta ... orain zauden aldean.  
'... bateko opilak', taxu eta etorki berekoak, bizkaitarrek dioten moduan.  
... nagusian ondu zuen Giuseppe Verdik *La Donna è Mobile* aria ospetsua.
- 5.** Busti egin dugu tea, baina ez bostetako.  
Zerga honen inguruan, zer esan askorik ez, igo behar dutela alegia.  
Izugarrizko, ikaragarritzko, egundainoko...
- 6.** Eguberri garaia dugu Nafarroako leku askotan.  
'Bere' diote bizkaieraz.
- 7.** Gizakiak ere egiten ditu horrelakoak, hontzen eta besteren kontutzat hartua den arren.  
Pikoa eta gaiztoa malda hori.  
Ahoaren erdian sortzen da bokal hau.
- 8.** Bibliaren arabera, ... zerion Salomonen palazioari alde guztietatik.  
Ez dira emeak.
- 9.** Iruñe aldeko zendea batekoak dira hauek.
- 10.** Lehena izateko sortu bide zen.  
Zergatik deitu zioten horrela, mendebaldeko lurraldeak oro galdu bazituen?  
Eta balio du.
- 11.** Puska, esate baterako.  
Askotan azaltzen da herri-izen hau donostiarren izaera berezia ahotan hartzen denean.
- 12.** Gabezia.  
Laborarien ametsa izan zen orain urte batzuk, baina mugatu gabe emazu zuk.
- 13.** Estamine, landare fanerogamoen sexu-organo ar.  
Zikiro esan genezake berdin-berdin.
- 14.** Astatoaren ikurra.  
Ebak jan zuen, gizarte zibilaren onerako.  
Letra ugariena da frantses hizkuntzan.
- 15.** Errepikatuz, atean jotzearen onomatopeia.  
Giza taldeek ... beharra dutela uste dute 'gizazain aurreratu' batzuek.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	O	D	O	L	T	S	U	█	G	A	Z	E	L	A	K
2	K	A	P	I	T	U	L	U	A	█	A	Z	O	T	A
3	O	R	A	N	█	B	U	R	L	A	T	A	R	█	X
4	N	O	█	A	B	I	A	R	A	Z	I	█	E	S	K
5	D	A	N	I	E	L	█	E	R	K	A	T	Z	A	█
6	O	T	O	█	Z	A	P	A	T	A	█	R	I	G	A
7	█	E	R	O	█	R	A	█	A	R	G	A	L	A	K
8	T	█	A	R	I	O	T	A	R	R	A	K	█	R	U
9	X	A	B	A	T	█	A	R	R	A	S	T	I	R	I
10	E	B	A	█	Z	E	R	R	A	█	K	O	R	A	L
11	K	A	I	S	E	R	█	A	K	T	O	R	E	█	U
12	A	R	T	I	L	E	A	K	█	A	I	E	N	E	A

# Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen III. Txapelketa

FINALA

Irun, 2009ko azaroak 28



Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Denbora: 1. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_ 2. min. \_\_\_\_ seg. \_\_\_\_

Emaitza (akats kopurua): \_\_\_\_\_ •

Sailkapena: \_\_\_\_\_ Sinadura: \_\_\_\_\_

# EHHGT 2009 - FINALA

## EZKER ESKUIN

- 1.** Gure aurpegiak nolako, mendiak ere bere hegaletan halako.  
Negar-haran deitu zion harakok Lurrari, bada hona apezek zer infernuari.
- 2.** Billabona aldekoa da hau, baina Ubillostarren lurra hedatzen ziren tokiko.  
Basakeria eta krudelkeria dira haien patua.
- 3.** Araban dago herri hau, Gaubea aldean.  
Aditz batzuei eransten zaie atributo hau, haien izaera eragilea indartzeko.
- 4.** 'Z' batez burutik ongi ez, bere horretan guztiak daramatza herrestan.  
Eguzkiarenaz da konforme urrearena urrun duena.  
Gorrerian bizi dena adierazten du ekialdean.
- 5.** Apalak ditu, agerian edo, altzari honek.  
Pegarraren edukia, baina Iparraldetik heldua.
- 6.** Zabalarazia.  
Kontsonante bikoitza da hau.
- 7.** Torino hiria zeharkatzen du Italiako ibai honek.  
Berorize, alegia, Zuberoako Basbürüko Ibarrezkerrean.  
Hala deitzen dio askok ekialdeko haizeari.
- 8.** Bonba mota zehazten duen bezala adieraz dezake izerdi-pats ugaria.  
Hitz hau marratxoz edo gabe idaz daiteke zaindarien aburuz; apalei ez dagokien maila adierazten du nolanahi ere.  
Horixe da bokal hau, espero zenuena.
- 9.** Laguntza edo sostengu.  
Espainian, erregeren sinadura darama maiz agindu honek.
- 10.** Busti eta ez da urritzen, bikoiztu baizik.  
Sabino Aranaren ekarkina izan zen hitz hau; baina mugatu gabe emazu zuk.  
Gasteiz inguratzen du.
- 11.** Zahartua.  
Dantzariak ohi dituzte saio hasieran.
- 12.** Erabat Baxenabarren eta Zuberoan bereziki.  
Maleziarik ez dutenez esan ohi da.  
Ipar Euskal Herrian, inorekin ... izan, lagun izan gabe norbaitekin tratua izan.
- 13.** Sistema eragilearen siglak, baina ingelesez.  
Europako hiriburu honetan ere, apez katolikoek latinezko mezaren bukaeran, 'Ite, missa est'.  
'... naizela, ... naizela, hor ikusten det Txirrita...'
- 14.** Jaidura adierazten du, eta gaizkinahia aldi berean.  
Metalez nahiz larruz, bularra babesten zuen.  
Ogiak itxura hori hartzen du bere ondoko hitzetan.
- 15.** Gizartearen oinarria izan dira Indian.  
Lautadaren parekoa da, baina ez da aintzat hartzen Arabako kasuan.

## GOITIK BEHERA

- 1.** Ekialdeko errege haiei erantsi ohi zaien atributoa.  
Alboak, lehen bide bazterretan ugari ikus zitezkeen arbola sendoak.
- 2.** Arabako herri bateko duzu honako hau.  
Ikasleek karrera bukaeran egin ohi duten erakustaldia.
- 3.** Garaziko herri tipi-ttipi bateko.  
Gertu, 'Eusko Gudariak' kantan hartzen duen adieran.  
Hesi honek ez du bokalik.
- 4.** Ziraldoak egitea du gogoko letra honek.  
Balio gutxiko dirua zen mendebaldeko lurretan.  
Itxura hau hartzen du begiak hitz eratorrietan eta abarretan.
- 5.** Ondoko, ondorengo, Ipar Euskal Herrian.  
Horrelakoetatik bizi dira, esate baterako, autoak konpontzeko tailerrak.
- 6.** Kukuso da Bizkaian, animalia askoz handiagoa eta iletsuagoa euskal bazter guztietan.  
Bazterrak alegia.  
Kretazeo ospetsua adierazten duen letra.
- 7.** Plural orotan espero izatekoa da potasioa.  
Islandiakoa oso gardena da eta ezaugarri optiko bereziak ditu.  
'Griña gaizto guztiak / tiratzen didate / aitzurrak eta ... / mudatuko naute', kantatu zuen Kazkazuri bertsolari oiartzuarrak.
- 8.** Planeta txiki bat da hau, ez ezazu gehiago mugatu.  
... lehen diote Ipar Euskal Herrian, Hego Euskal Herrian zabaldu den 'lehenik eta behin' famatu horren ordaineko.
- 9.** Eztainuaren ikurra.  
Profeten ezaugarria da hau.  
'Lanean arazoak eta ez nolanahikoak' esan nahi dute espanierazko sigla hauek.
- 10.** Uko eginaraziak.  
Kresal esaten diote Bizkaian.
- 11.** Barazki lekadunez esan ohi da.  
Aurrerazale askoren ahotan ibili da hitz hau, azkenaldi honetan halako arrakastarik ez badu ere.
- 12.** Erdia, hitz elkartzeetan.  
Lantegia adierazten du hitz honek, batzuen oso gogokoa ez den arren.  
'... zer plazera bost urthen bürían sor-lekhilat ützültzia' kantatu zuen Etxahun Irurik.
- 13.** Ninia du begiak mintz honen erdi-erdian.  
Hala deitzen diote kontrabandistari, gaueko lanean ohitua delako edo.  
Bostehun erromatar.
- 14.** Zikinkeria adierazten du.  
Itsas bele esaten diote itsas hegazti handi honi.
- 15.** Ekorakoa.  
Hala nahi zuten kafea gure garbizaleek.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	M	A	Z	E	L	A	K	█	S	U	L	E	I	Z	E
2	A	M	A	S	A	R	█	A	N	K	E	R	R	A	K
3	G	U	R	E	N	D	E	S	█	A	K	T	I	B	O
4	O	R	O	█	D	I	S	T	I	R	A	█	S	O	R
5	A	R	A	S	A	█	P	E	G	A	R	T	A	R	A
6	█	I	R	E	K	I	A	R	A	Z	I	A	█	R	R
7	P	O	█	M	O	N	T	O	R	I	█	I	P	A	R
8	L	A	P	A	█	G	O	I	M	A	I	L	A	█	A
9	A	R	R	I	M	U	█	D	E	K	R	E	T	U	█
10	T	█	E	K	A	R	P	E	N	█	A	R	A	B	A
11	A	T	S	O	T	U	A	█	A	G	U	R	R	A	K
12	N	E	T	█	X	A	L	O	█	E	L	A	I	R	E
13	O	S	█	B	U	K	A	R	E	S	T	█	A	R	I
14	A	I	H	E	R	█	K	O	R	A	Z	A	█	O	T
15	K	A	S	T	A	K	█	Z	E	L	A	I	D	I	A